



Euskal Herria ezagutuz

OTXANDIO (BIZKAIA)

Natura biziaren erdian

Gorbeia eta Anboto artean, naturaz inguraturik dago Otxandio. Ez da herri handia, baina bizitza sozial handia du. Historiaz betetakoa ere bada; antzinako ardo eta arrain saltzaileen geralekua izandakoak 1936ko gerran Iberiar penintsulako gizarte zibilaren kontrako lehen bonbardaketa jasan zuen, herriko jaietan. Naturaz, kulturaz, historiaz, eta bertako jendeaz asko dago ikasteko. Irakasleak, otxandiarrek eurak.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

HERRI TXIKIA da Otxandio; 1.300 biztanlekoa. Baina, txikia izanda ere, bizitza sozial eta kultural handikoa da, eta asteburuetan beti egoten da zer edo zer kalean: taberna giro alaia kale nagusian, eta jan-edanerako hainbat aukera bertako ostatueta. Elkarrekin betidanik izan dute lan boluntariorako eta auzolanerako joera handia. Horri eutsiz, Otxandiok zer eskaini dezakeen ikusi, eta elkarrekin eskaintza hori egiten hasi dira turismo arloan, kirol arloan eta nekazaritzan lan egiten duten herritarrek.

Basoetan barrena

Baso eta mendi ibilbide ugari daude Otxandion. Anboto aldera edo Gorbeia aldera jota, oinez zein bizikletaz egin daitezkeen ibilbideak daude. GR 98 edo “Ardoaren eta arrainaren ibilbidea” ere bertatik pasatzen da. Ibilbide hori Oionen hasi eta Bermeon eta Lekeition amaitzen da. Izenak dioten bezala, arrain saltzaileek hegoalderantz joateko erabiltzen zuten, eta ardo saltzaileek iparralderantz joateko. Legutiotik eta Urkiolatik pasatzen da bidea, eta tartean, zelan ez, Otxandiotik. Gure

txangoaren beste helburu bat Legutioko urtegiaren hasierara joatea ere izan daiteke. Mekoleta auzo ederretik pauso batera dago.

Bizikleta-poteoa

Norberak bidexka bat hartu eta parajeotan galtzea izan daiteke aukera bat, eta bestea gidariarekin joatea. Otxandio inguruko ibilbideak ederto ezagutzen dituzte Biciguneko lagunek. Bizikletak alokatzeko eta konpontzeko lekua da Bicigune, eta BTT irteerak eta bizikleta-poteoak ere antolatzen dituzte.

Oleta auzotik gertu –Aramaion dago Oleta, baina Otxandiotik kilometro bira–, harizti baten ertzean Hontza Extrem abentura parkea zabaldutik zuten duela pare bat urte Otxandioko gazte batzuek. Gazte-txoentzako zein helduentzako probak dituzte bertan: zuhaitzetako ibilbidea, arku-tiroa, zuhaitzetako eskalada... Familia eta kuadrilla giro-rako leku txukuna da.

Artzainengandik ikasten

Gaztagintzaz ikasteko aukera ere badago Otxandion. Herrigunetik nahiko gertu, hiru gaztandegi daude. Oletan Maider Unda borrokalariak egiten du gazta, Kerexara auzoan Felix eta Martin Ajuria anaiek, eta Mekoletan Aitor Padi-

Oriol mendia, Aramaioko Oleta auzotik gora.

PAULO ETXEBERRIA





ASIER SARASUA GARMENDIA- CC BY SA



BIRKENWALD

Lerro hauen gainean, Vulcano jainkoaren omenezko iturria. Goian, plaza nagusiaren irudi panoramikoa.

Ilak. Lau artzain horiek gazta zelan egiten duten erakusteko jendea hartzten dute, eta prozesua ikusi ostean, gazta-dastatzeak ere antolatzen dituzte.

36ko bonbardaketa gogoan

Otxandioko herriguneak xarma berezia dauka, eta kale nagusian bertan, Artekalen, herriko historiari buruzko hainbat kontu ikas daitezke. Koikili Lertxundi futbolari eta historialariak saio batzuk egin ditu bisita gidatuak egiten, eta azaldu duenez, orduak eman daitezke herriko historiari buruz berba egiten. Aterpetxea zabaldu zuen duela urtebete Lertxundik, eta herriko bi landetxetako kideekin eta hainbat herri-tarrek batera, turismo eskaintza aktiboa eskaintzeko lanean dabil.

Lertxundik Andikona plazan hasi izan ditu bisitak. Sinbolismo handiko plaza da, 1936ko uztailaren 22an bonbardatu baitzuten, Santamña jaietan. Iberiar penintsulan gizarte zibilaren kontra egindako lehen bonbardaketa izan zen hura, eta 57 pertsona hil ziren. Erasoan hildako guztien oroimenez, Nestor Basterretxeak egindako monumentua dago plazan, eta plaka handi bat, izen-abizenekin.

Burdingile herria

Plaza nagusia ere esanguratsua da. Handiegia eman dezake hain herri

txikirako, baina kontuan izan behar da Otxandio leku estrategikoan dagoela. Merkatarari askoren galekua izan zen ardo eta arrainaren ibilbidean; herriko sarreran aduana ere izan zuten. Plazak badu beste berezitasun bat: Vulcanoren iturria. Suaren jainkoa da Vulcano, eta Otxandion burdingintzak izan duen tradizioagatik, herrian ohorezko lekua du. XVIII. mendean, iltze eta ferrak ekoizteko 80 sutegi zeuden Otxandion, eta sarrailetarako beste bi. Esan ohi denez, Kolonen itsasontziek Otxandioko iltzeak zeuzkaten.

Vulcanoren iturriko ura ez dago tratatuta, eta burdin asko dauka: "Horregatik gara otxandiarrek hain indartsuak", dio brometan Koikili Lertxundik. Ez dakigu indartsuak diren, baina bai naturzaleak eta abegikorrek direla. Bisitatzeko leku ederra egiten dute Otxandio otxandiarrek eurek. ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune
parte-hartzailea.

Otxandioko
ho
herri-ola
bizitza kalitatea helburu

